

tzen... Pekatu aundiagorik egin ote diteke euskera eta aberri maitearen aurka? Ez dut uste. Ala ere ez dut itxaropenik oraindik galdu bide zuzenera etorriko generala noiz-pait, baiña ohe litzake len-bait-len, bestela agur gure urrezko amesa, Jaunak, begietako gandua kenduko al digu, Saul'i bezela, argi ikusi dezagun, elkarrekin leialki, eta adiskidetsuki iardutzeko. Ba-dugu bai euskal ezpata mun sartu, ta sakonki sartu ere, anai-arteon negargarriko ezpatadantza atergabekoan ibiltzeke...

---

"AITA ONAINDIAREN " eskutitza.

"... Gazteak zerate eta gazteak beti izan oi dira asmotsuak, eta bear...Ala ere, artutako bidez ongi zabilzate ta ekin orrela. Yakin aldizkari ederra da, nire ustez. Idaz lanak, atsegin izatekotan labur eta sakon bitez: ori jakitunentzat duzute, ta orrela egin dezakezute, irizle zorrotzen baldur gabe. Komeni litzake, guztion artean, teologi- ta filosofi-iztegitxo bat osatzea: orretarako, erderaz edo lateraz, izen-zerrenda aundi-aundi bat egin, izen oiek zerbait azaldurik, eta gure ORIXE maixuari bialtzea egoki litzazuke. Gai oiek, batez ere, filosofi-gaiak, beste iñork baiña obeto ezagutzen gurean, eta apal-apal, eskale antzo, bereganazuzendu ezkeron, nire ustez, ark egingo luke, edo osatuko luke izen-zerrenda ori: Oso lanpetua dabil, baiña gai ori eder zaiona dan ezkeron, egin lukelakotan nago.

Ortarako, adibidez, aurtan lau baten artean leporatu egizute gai oietaz, bai teologi bai filosofi-gaietaz, izen-zerrenda albait osoena egitea. Eta datorren urtean, edo ariñago, amar bateren artean aztertu eta ikusi zerrenda ori, ta ortara aztertuta ikusi ondoren, ORIXE jaunari bialdu. Eta ark onetsitako itzak erabilli gero idaz-lan guztietan. Bestela naspilla aundia sortzen, bakoi-tzak bere bidetik jardun oi dulako. Orrela berriz batasuna lortuko gai garrantzitsu oietan.

Beste urteetan beste edozein gaietaz orobat egin dezakezute: naiz dala gizarte-auzi, naiz elerti, naiz eliz-

-legedi, naiz edozer..."

LIBURU BERRIAK

"GOAZEN LOURDES'a"

Lazkan'ko beneditar gazte batzuk eratutako liburuxka da. 87 orrialde ditu. Oso baliotsua da Lourdes ortara joan nai dutenentzako. Eskutik bezela eramaten gaitu. Aitzulora Andra Mari ikustera goazenean, orretzek kontatuko digu labur labur gertaera arrigarriaren mamia. Zeruko Amarekin itz egin nai dezagunerako ere ba-ditu otoitz ederrak; kantu politikak ere bai barnea girotzeko.

Andra Mari'ren ikustaldia eginda Sta. Bernardatxo'ren bizitoki eta oroigarriak, eta Lourdes'ek dauzkan beste gauza politikak ikusi nai baditugu ere, liburutzko orretzen orrialdetan arkituko dugu oiek ikusteko erarik erosoena. Bertso ederrak ere ba-ditu biotza gozatzeko. Euskera guri guria du gainera. Zer nai duzu ba geiago?!

Eskerrik asko beneditar gazte oiei, eta olako asko ekarri ditzatela.

P.M.